

## Mujika, 2. Mailara

Ibartarrak irabazi du  
3. Mailako Txapelketa;  
Rekondo leitzarrak ere  
lortu du txartela ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2005-10-09 ▶ III. urtea ▶ 706. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Lehen eta orain, zuku preziatua: sagardoa

**ADUNA** ▶ Antzina bezala egin zuten atzo sagardoa Upelera-n; gaur ere badago zer dastatu ▶ 7



Sagardogileak, tolaean, sagarra jotzen, atzo. M. SAN SEBASTIAN



N. LIZARTZA

[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)

**Saldías Miguel** Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO ASEGURUAK
- ETXEAK
- ISTRIPUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

## Dantzarien kalejirak hartu du herria

**IBARRA** ▶ Dantzari gazteen erromeriak eta helduen jaialdiak esan diote agur, jai giroan, Alurr dantza taldearen Kultur Asteari ▶ 6

## ARMA eta GIDA



### baimenak

- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena



R.P.S 401/04

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara



## LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa  
Tel/Faxa: 943 67 01 14  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria  
Tel/Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

TOLOSALDEA ▶

## Aldarrikapen Gunea eta bilkura hil honetan

AHT Gelditu!  
Elkarlanak deituta ▶ 5

**IRIZIA: NAZIO EZTABAIDAGUNEA** ▶ Atzo egin zuten Zarautzen Nazio Eztabaidagunea, Nazio Garapenerako Biltzarrak (NGB) antolatuta. Nazio Plana izan zuten eztabaidagai ia 400 lagunek. Eskualdeko ordezkariak ere izan zen hitzorduan, eta gertutik ezagutu duten prozesuaz mintzatu dira.

**ANTTON IZAGIRRE (EZKER ABERTZALEA)** ▶

## Euskal Nazioa eraikitzeke garaia bada

**N**azio Garapen Biltzarra 2004ko uztailean martxan jarri zenetik, lehen aldiz urriaren 8an bildu da Gunea euskal nazioaren egoerari buruzko hausnarketa egin eta nazio gisa bizirik irauteko eta garatzeko beharrezkoak dituen lan hildoa, estrategiak eta etorkizunerako plana adosteko eta erabakitzeke.

Adostasuna aipatu dut, hau delako Euskal Herria nazio gisa onartzen dugunon artean ezinbestekoa dugun eronka. Eronka, noski! Zoritxarrez, ez baita azkenaldi luze honetan ohikoa izan euskal eragileon artean. Adostasuna herri gisa lehentasunak erabakitzeke, adostasuna lan eremuak finkatzeko, adostasuna elkarrekin lan egiteke.

Jakin badakigu, eta horrela izan dadin nahi dugu, Gunean elkartu garen gizon-emakumeok ikuspegi desberdinak izan

baditugula, sentsibilitate elkarrengandik berezituak ditugula, asmo eta pentsakera politiko, sozial, kultural anitzak ditugula; baina, horren gainetik, elkarrekin eta norabide berean jardun beharrek konbentziturik elkartu gara.

Euskal herriak ez du, gaur-gaurkoz, nazio ordezkari bat duen parlamenturik, ez du gaurdaino, euskal lurraldeak osotasunean harturik, etorkizun politiko, ekonomiko, sozial, kulturalari buruzko azterketa orokorra

### ADOSTASUNA

«Adostasuna da Euskal Herria nazio gisa onartzen dugunon artean ezinbesteko dugun eronka. Eronka, noski!»

egiteko foro edo gune propiorik; eta, aitoren ofizialik ez dugun bitartean, izaera antzeko eragile desberdinok hartuko dugu haren lekukoa, eta legitimotasun osoa dugu Euskal Herriak aurrera begira behar duen herri estrategiaren zutabeak eta ezaugarriak definitzeko.

Hirurehun eragile inguruk gaur egun bizi dugun egoeraren azterketatik abiatu, ondorengo urtetako Nazio Plana jarri dugu abian. Inor ordezkatu gabe, dagoeneko eragileek arlo desberdinetan martxan dituzten egitasmoak indartuz, batzuk besteen lana partekatuz, osagarritasuna irizpidez jokatu eta elkarreraginkortasuna bilatuz... Azkenean, martxan da jadanik Gunea.

Nazio estrategia beharri buruzko eztabaida esparru guztietara helden ari da. Guztiok aurre egiteko garaia da.

**ONINTZA LASA (EUSKO ALKARTASUNA)** ▶

## Atzoko hitzordua Zarautzen

**O**rain dela bi urtetik hona, Euskal Herria bizi dugun egoeraren aurrean, gizarteko alderdi, eragile eta abarrek eztabaidarako gune bat eratu zen. Guztion artean, konponbiderako proposamen bat egitea zuen asmo nagusitzat.

Horretarako, hainbat lan talde eta azpitalede sortu ziren, arlo berezituak lantzeko, dela ekonomia, kirola, hezkuntza, komunikazioa, espazio laborala edota erakundeen saretzea, besteak beste.

Batzordeetan Euskal Herriko premia ezberdinen inguruko gogoeta egin ostean, eta horretarako hainbat planteamendu aztertu ondoren, diagnostiko eta proposamenak egiten aritu izan da Nazio Eztabaidagunea.

Atzerako ikuspegiak egiterakoan askotan gertatzen den moduan, une onak, pozgarriak gordetzen dira gogoan, baina metodologia, lan egiteko modu ezberdinen uztarketa eta abarrek aurrera egitekotan

motibazio sendo bat eskatu zuen. Eta noski, denetarik egon da, gehiago edo gutxiago eskatu duten eginbeharrak.

Hemen ez dugu bere ibilbidearen kronologia bat egingo. Baina hasiera-hasieratik borondate onenarekin egon den Eusko Alkartasunarentzat berri pozgarria ere bada, fase ezberdinak pasatuta, egun, oraingo 51 eragilek adosturiko Oinarriko Hitzarmen demokratikoarekin bat egitea.

Eztabaidaguneko atal batek, hots, Nazio Garapen Biltzarrak (NGB) duen egiteko

### PARTE-HARTZEA

«Garrantzizkoa da guztion parte-hartzea, guztiok baikara partaide eta guztiok baitugu zer esateko eta egitekorik»

bat, urtero Nazio Eztabaida bat antolatzea zen. Eta horra hor, beraz, Zarauzko biltzearen helburua. Aurtengo eztabaida ematea.

350 kide inguruk osatutako bilera izanik, adostasuna da oinarria, nahiz eta eztabaidagai norberari otutzen zaizkion guztiak dauden.

Gure ikuspegitik, Nazio Eraikuntza ezinbestean Gizarte eraikuntzarekin bat egin behar da, hau da, esparru soziala ere landu behar da, txanpon bereko bi aldeak dirrelako, eta bata ez baita bestea gabe, eta alderantziz.

Horregatik, garrantzizkoa da guztion parte-hartzea, guztiok baikara partaide eta guztiok baitugu zer esateko eta egitekorik.

Eztabaidaren, ideien planteamenduen bidetik jorratutako Nazio Eraikuntzan Eusko Alkartasunak jarraituko du oraingoan bezala parte hartzen. Unean uneko lanak egiten. Oraingoan, aurtengoan, atzo bezalaxe, Zarautzen.

### ESANAK ▶

**JAVIER MALKORRA**  
INSALUS-EKO KUDEATZAILA

«Bere eskaintza egokituz eta zerbitzu ona bermatuz eusten dio Insalusek»

**XABIER LASKIBAR**  
MIKOLOGOA

«Zegoen perretxikorik onena hilkorra dela jakin da orain»

### TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))**

**Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 652339

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua:

889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua:

681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua:

653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa:

690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa:

948 510800

▶ **Orendain.** Medikua:

655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

461111

▶ Asun Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.:

672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.:

006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua:

693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa:

675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

### iragarki laburrak ▶

#### Gidariak. Hurrengo deialdiak:

Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

#### Haur eskola publikoak.

Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 65 01 93.

#### Garbitzaileak.

Lan finkoa: eraikin publikoak, ikasteak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 65 01 93.

**Correos.** Correos-ek langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan

943 65 01 93 telefono zenbakira **deituta.**

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira **deituta.**

**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain,

Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendar eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira **deituta.**

#### Laborategiak.

Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan 943 65 01 93.

UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

## Izena eta izana



**H**elsinkin jokatu ziren joan den abuztuan atletismoko munduko txapelketak. Egingako markak eta irabazitako dominaz aparte, jaso genuen albiste bitxirik.

Kontua da Afrikako zenbait herrialdeetako punta-puntako atletak, gorriak ikustetik urre gorria ukitzera pasa direla, Pertsiar Golgoko urre beltzak ordaintzen duen luxuzko gisa trafikoko modukoan. Hori bai, beren bidesaria ordaindu behar izan dute: norbere izenari eta herritartasunari uko egitea. Esaterako, lehen kenyarra zen Stephen Cheromo, orain gutxi Qatar-eko hiritar Saif Saaeed Shaheen bihurtu zaigu. Eta munduko txapela lortu du 3.000 metro hesidun proban.

Diferentzia ederra; harriz jositako bideak lasterka oinutsik egitetik, zapata italiar garestiak jantzita, alfonbra apaintsu beti garbiak zapaltze-

ra. Lehen gurdirik harrapatu ezin eta orain auto dotore txoferduna nahierara erabiltzera ohituta. Eta, gainera, hil arteko soldata jarri diote Qatarren. Nahiz eta bidean izena galdu eta lehen kenyar izana, orain qatartar bihurtu.

Euskaldunok aspaldikoa dugu gure izena eta izana munduan barrera zabalaz saiatzearana. Gogotik ahalegintzen gara, gainera. Izena duena, nor izan badelakoan. Izena eta izana, biak behar direlakoan. Gauzak muturrera eramanda, ondusunak baino, izen ona hobea delakoan; bai behintzat herri zahar honen jakinduria zaharra-goari kasu eginez gero. Ez diogu erreparorik jartzeko aldi behin, harrotasun puntu batez, garenak garela erakusteari. Besterik ezean, alegia, nor izan gabe ere, jantzi txapela eta kitto! Ibili munduan, txapela buruan.

Saif Saaeed Shaheen-ek eman digu bestelako leziarik. Gure memorian iltzatutako jarraibideak eta herri filosofia hankaz gora jarri dizkigu. Izenari eta izanari uko eginda. Izen onaren aurretik ondusunak jarrita. Eta, hala ere, gu bezain munduko. Eta txapeldun.

ARGAZKI ZAHARRA ▶



## Tolosako Agintari kalea eta Santa Maria eliza

**Erredakzioa** ▶ Tolosako Agintari kalearen eta Santa Maria elizaren irudia argitaratu dugu oraingoan argazki zaharren txokoa. Irudi horien bidez ikus daitezke herriak jasan dituen aldaketak. Horretarako, eta ondarea berreskuratzeko, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak dei

egin die herritar guztiei, beren etxe, lantoki edo elkarteetan jasota dituzten argazkiak digitalizatzen uzteko. Tolosako Kultur Etxera (943 67 03 83) dei daiteke izena emateko. Proiektuan parte hartzen duen orori CD bat emango diote digitalizatu zaizkien irudiekin. \*GURE KAIOLA. 1927-2002\*.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

### Zer iruditzen Abesbatza Lehiaketa Usabalen egitea?

Behintzat lehiaketak aurrera jarraituko du. Usabal kiroldegia ez balego, zer gertatuko zen? Agian bertan behera geldituko zen (zaila ikusten dut), edo beste leku ziztrin batean ospatuko zen. Tolosar askorentzat behintzat lehiaketa Tolosako mamian ez ospatzeak ez du hainbesteko oihartzunik izango.

MAITE ▶

Urruti dago Usabal, baina aurten beste erremediorik ez dugu izango. Jarriko al dituzte autobusak saioetara joateko? Ordutegiakin bat edo nahi dutenean? Abesbatza Lehiaketa pasatuko da, baina zine, antzerki eta musika saioak non izango ditugu aurten? Usabalen?

MIKELTXO ▶

Ondo iruditzen zait. Ez dago beste aukerarik.

▶

### Udazkeneko eta neguko eskaintzak heldu dira dendetara. Jarraitzen al diozu modari?

Oso arropa gutxi erosten dut, eta erosi behar dudanean %90etan Zara-n egiten dut. Hortaz, ez dit axola handirik modak eta sasoi aldaketak.

AGIRRE ▶

Ez dizula modak azola! Eta zer egiten duzu Zara-n arropa erosten? Ez bazenu moda jarraituko, ez zenueke Zara-n erosiko. Egia esan, merkea bada, baina ez dut ulertzen moda interesatzen ez zaion nonbait Zara-ra joatea. Benetan.

MAIDER ▶

Zara ez da modako denda bat. Diru gutxi duen jendeak erosten duen tokia baizik. Trote

handiko arropa merkea saltzen duten tokia baino ez da. Moda axolako balit, markako arropak eta markako dendetan erosiko nuke!

AGIRRE ▶

### Eskualdeko merkatariek kanpainak egiten dituzte herritarrek erosketak herritik atera gabe egin ditzaten. Non duzu ohitura erosteko?

Janaria Eroski-n, arropa Zaran... Denda txikietan ogia bakarrik.

AGIRRE ▶

Nik ere ez dut kontrakorik esango, ohitura hartua baitut merkatalgune handietara joateko. Gehienbat, dena eskura dagoelako leku berean. Baina, egia esan, gero eta gehiago saiatzen ari naiz herrian bertan erosketak egiten. Guk geurea zaintzen ez badugu! Tra-tua askoz gertuagokoa da, eta aukera handiagoa dago, egia esan. Merkatal gune handiei *esker*, denak berdin-berdin goaz. Herriko dendak zaindu behar ditugu!

IÑAKI ▶

Herrian bertan zein kanpoan. Berdin dit horrek. Nik poltsikoari begiratzen diot.

ENEKO ▶

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zorion agurrak.** Zure bikotekidea, laguna, senitartekoa edo dena delakoa zoriondu nahi duzula? Egunkarian egunero argitaratzen diren agur mezuk webgunean ere ikus ditzakezu.



iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak salgai. Pincher arrazakoak, prezio onean. 645 70 36 34.

AIZKORA ▶

# Jexux Mari Mujika ibartarra da 3. Mailako txapelduna

Aurrerantzean Euskal Herriko Aizkolarien 2. Mailan ariko da, bigarren gelditu den Jon Rekondo leitzarrarekin batera; Joseba Otaegi zizurkildarra seigarren da

JAIONE ASTIBIA

Jexux Mari Mujikak irabazi du Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketa: aurrerantzean 2. Mailan ariko da ibartarra. Ostiral arratsaldean jokatu zuten finala Agurainen sei aizkolarik: Mujika bera, Otaegi zizurkildarra eta Rekondo leitzarra, eta Telletxea, Lasa eta Iriarte. Hasiara-hasieratik hartu zuen burua Mujikak, eta lehendabiziko hiru enborrak aurreneko ebaki zituen, Telletxeak eta Rekondok bertatik jarraitzen ziotela; laugarrena hari lehorxeagoa egokitu zitzaion, ordea, eta Lasak harrapatu egin zuen. Aldiz, legorretarrari bosgarrena zailagoa egokituta, berriz ere lehen lekua berreskuratu zuen txapeldunak, eta «azken bi enborretan egurra emanda», halaxe argitu zion HITZARI Mujikak berak atzo goizean, txapela lor-



Jexux Mari Mujika txapelduna, udako saio batean. INIGO TERRADILLOS

tu zuen, 13 minutu eta 52 segundoko dendora eginez.

Denbora polita, txapela soinean eta, gainera, mailaz igo. Horiek denak lortu zituen ibartarrak. Oso pozik zegoen: «Sinistu ezinda nago oraindik: urduri joan nintzen, baina izerdi pixka bat atera eta txisparekin jarri nintzen eta... Askotan parte hartu arren, finalean ere aur-

ten sartu naiz lehenengo aldiz eta, gainera, irabazi egin dut. Oso gustura nago».

## Aitarentzat

Zioenez, «oso pauso garrantzitsua» da harentzat lorpen hau, aurrerantzean 2. Mailan ariko delako, «hor beste maila bat dago eta ikusiko dugu baina». Bestalde, «aitak egindako lana» gogoan izan zuen: «Eske-rrak ematen dizkiot bere laguntzagatik, ni lanetik etortzerako egurrak prest eduki izan dituelako, eta asko lagundu didalako», aitatu zuen, bereziki..

Bigarren lekurako ere lehia izan zen, maila igoera baitzekarren. Mujikaren atzetik ibili ziren Lasa eta Rekondo: Lasa bigarren aritu zen ia erabat, laugarrena enborrean txapelaren usaina ere jaso zuen, baina txapeldunak berea egin zuelarik, legorretarrak etsia hartu

zuen nonbait, eta Rekondo eta Telletxea aurreratu zitzaizkion, bi naparren arteko borroka sortuz. Rekondo gailendu zen 14 minutu eta 54 segundoko denborarekin, 15 segundoko aldearekin. Ondorioz, leitzarrak ere 2. Mailan aritzeko aukera izanen du aurrerantzean. Sorbaldako minez joan zen finalera, «astelehenean ez nuen besoa goratzen ere eta justu-justuan aurkeztu ginenez», argitu zuen, eta ondorioz gogor samarra suertatu zitzaion saioa. Baina jokoan zegoena maila-igoera izanda, «sufrituz, egurrak ere eutsiak ziren-eta, iaz baino denbora gehiago behar izan dugu bukatzeko, aizkora gehiago egiten dugun arren». Honek ere saria jaso zuen: «Lasa zen gure aurretik, baina nahasi egin zen, eta aukera ikusita, eman egin genuen. Gustura nago, mailaz igota».

Oso gustura gelditu ez zena Joseba Otaegi zizurkildarra izan zen, seigarren lekuan gelditu baitzen, lanak gainerakoak baino beranduago amaituz. Horixe adierazi zuen berak ere atzokoan: «Bateren nerbiorik gabe joan nintzen, gorputzaldi txarrarekin». Hasiara samarretik gelditu zen atzean, «bigarren enborrerako nabaritu nuen eta lanak bukatzeraz joan nintzen. Zurea ematen ez duzunean ez zara gustura geratzen. Hurrengoan beharko», zioen atsekabetu samar.

JEXUX MARI MUJIKAK  
TXAPELDUNA

«Ezin sinetsiz nago: askotan parte hartu arren, finalean aurten sartu naiz lehenengoz eta, gainera, irabazi»

JON REKONDO  
AZPITXAPELDUNA

«Justu-justuan aurkeztu ginenez. Sufrituz eta emanda, baina lortu dugu mailaz igotzea, eta oso gustura gaude»

JOSEBA OTAEGI  
SEIGARRENA

«Nerbiorik gabe joan nintzen, gorputzaldi txarrarekin. Zurea ematen ez duzunean ez zara gustura geratzen»

## SAILKAPENA ▶

EUSKAL HERRIKO  
3. MAILAKO AIZKORA  
TXAPELKETAKO FINALAK

1. Jexux Mari Mujika	13.52
2. Jon Rekondo	14.54
3. Jon Tellebea	15.09
4. Jexux Mari Lasa	15.39
5. Arkaitz Iriarte	15.58
6. Joseba Otaegi	19.15



**musutruk eraman**

948 22 71 25  
telefonora deitu edo  
nabarra@nabarria.com  
posta elektronikora  
idatzi, zure datuak utzi\*,  
eta Nabarra aldizkaria  
bi hilabetez dohainik  
jasoko duzu etxean

[\*] Informazioak, helbideak eta helburuak

**NABARRA**  
Eusko Herriko Aizkora Txapelketa



**Hilabete honetan:**  
Joseba Santonandea  
Ander Usatziaga  
Pako Aizola  
Garañ Inchausti  
Virginia Irujo  
Unai Rurrigui  
Marko Amaspach  
Aurelia Arkoba  
Edorta Agirre  
Mañoli Irujo  
Mikel Repanaz  
Jon Maia  
Eider Rodriguez  
Tere Ibañeta  
Jose Luis Zumeta  
Dani Plano  
Gontzal Agote  
Fernando Mendiola  
Juanma Bajo Ulloa  
Lander Garro  
Jokin  
Zaldi Erola  
Mañoli Irujo  
Pablo Telleria

kioskoetan salgai

Harpildatu zaitez:  
948 22 71 25  
nabarra@nabarria.com



**Ken Zazpi  
Muchachito  
Bombo Inferno**

**TOLOSA**  
Zerezo plaza/Plaza de toros 22:00  
Urriak 15 / 15 de Octubre  
Aldiz aurretik 12€ (antzipada)  
Berria: 15€ (laquila)

www.kenzazpi.com

**TOLOSA**  
Zerezo plaza/Plaza de toros 22:00  
Urriak 15 / 15 de Octubre  
Aldiz aurretik 12€ (antzipada)  
Berria: 15€ (laquila)

www.kenzazpi.com

AHT ▶



Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak, atzo, Tolosako Kultur Etxean. MARTA SAN SEBASTIAN

# Bat eginik, protesta eta aldarrikapena

Aldarrikapen Gunea eta manifestazioa antolatu ditu AHT Gelditu! Elkarlanak, «mugimenduari indar berria emateko»

**ERREDAKZIOA**

AHT Gelditu! Elkarlanak bi ekimen nagusi antolatu ditu hil honetan, «AHTren aurkako mugimenduari indar berria emateko». Batetik, 13tik 21era bitarte, hainbat erakunde, gizarte mugimendu eta herri kaltetuetako bizilagunek Aldarrikapen Gunea antolatuko dute Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren aurrean, «AHTren inposizioa gaitzesteko». Bestetik, hilaren 22an, Bilbon, manifestaziora deitu dute, «Euskal Y proiektua geldiarazteko eskatzu». Horren berri emateko prentsaurkeoa eskaini zuten, atzo, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek.

«Mobilizatorako deia egiten du legealdi berri honen atarian, Eusko Jaurlaritzari atzera egin dezala eskatzeko, eta Espainiako Gobernuari exijitzeko, halaber, geldiarazi dezala ingurumenari, nekazaritzari, ekonomiari, lurralde orekari, eta, ondorioz, gizarte osoari hainbeste kalte ekarriko liokeen egitasmoa», azaldu dute. Gai honen aurrean «sentsibilizatuta» daudenak «gero eta gehiago direla» aziparratu dute, «konturatzaren direnak ondorioz latz eta atzera bueltarik gabeak izango dituen proiektu baten aurrean gaudela, konturatzaren direnak datuak isildu eta informazioa ezkatuta eta inposizioa beste biderik ez duen proiektu baten aurrean gaudela. Guztiak AHTri emango zaion erantzun honetan bateratzea garrantzitsua da».

Hala, Aldarrikapen Gunea antolatuko dute Lakuan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, hainbat herri kaltetuetako bizilagun taldeek, gizarte mugimendu, erakunde politiko eta sindikalek, AHTren Aurkako Asanbladak eta gazte erakundeek. «9 egunez, *Eusko Jaurlaritza. AHT Gelditu! Inposaketarik ez!* lelopean, AHT proiektua agerian uzteko eta salatze zentzuzko ekitaldi eta mobilizazio egingo ditugu. Ekimen honetan parte hartuko dute, bestalde, zentzuzko udalerrik kaltetuetako ordezkariak, kultura eta unibertsitate esparruko hainbat kide eta taldek, bai eta halako beste azpiegitura handi batzuen aurka sortutako beste herri mugimendu batzuk ere —Supersur autobidearen aurkakoak, Jaizkibealeko superportuaren aurkakoak...—. Haien iritziz, «AHTren inposizioa egitasmoak herritarren artean sortzen duen oposizio zabal eta anitzaren isla» izan nahi du Aldarrikapen Gunea.

**EGUNEZ EGUN ▶**

- 13. Gipuzkoako herriak.
- 14. EHNE eta baserriar kaltetuak.
- 15. Talde ekologistak.
- 16. Gazte mugimenduak.
- 17. Talde politikoak.
- 18. AHTren Aurkako Asanblada.
- 19. Sindikatuek.
- 20. Gazte erakundeak.
- 21. Bizkaiko herriak.
- 22. Manifestazioa Bilbon.

**Autobusak eskualdetik**

Amaiera emateko, manifestazioa antolatu dute hilaren 22an Bilbon; 17:30ean abiatuko da, Jesusen Bihotzaren plazatik. Hara joateko autobusak antolatu dituzte, eta honako lekuek eman daitezke izena: Alegian, Ixkifia tabernan; Anoetan Itzulin; Tolosan, Rakun eta Mescalen; eta Villabonan, Iratzarren. 15:30ean abiatuko dira, Tolosako Triangulotik.

AHTren auziaren egungo egoera ere izan zuten hizpide: «Agerian utzi nahi dugu Eusko Jaurlaritzak izan duen alde batego porrota, Euskal Y-aren eraikuntza lanak Gipuzkoan abiarazteko aginduak geldiarazi behar izan baititu, Espainiako Gobernuarekin sortu zaizkion konpezinengatik ez ezik, euskal gizartean sortu den eztabaida eta herri mugimenduak eman dituen mobilizazioen ondorioz». Jaurlaritzaren «gorkeria, intransigentzia eta agintekeria» salatu zuten: «Beste pauso bat eman du, eta hiru urteko kartzela eskatu du taldeko 24 kiderentzat protesta ekinga baketsu batean parte hartzeagatik. Tartean, Patxi Egilaz eskualdeko bizilaguna». «Gero eta nabariagoa da Espainiako Sustapen Ministerioa ari dela bidea markatzen. Garraio eta Azpiegitura Plan erraldoia bultzatzen ari da: 250.000 milioi euroko negozio ikaragarri bat baino ez da, negozio politikoa eta enpresariela, *garapen iraunkorra*-ren matorropean ezkatututa».

**Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak**

1. Ipuin harrigarriak 1  
Kastillopranko  
Biribil-biribilak
2. Ipuin harrigarriak 2  
Dar-dar  
Ondo eginarene ordaina
3. Ipuin harrigarriak 3  
Gatza ala erregea  
Biziak ezagutzeko hil
4. Ipuin harrigarriak 4  
Zapatari asmatzaillea  
Zerraldoan bizirik
5. Ipuin harrigarriak 5  
Ikazkina eta heriotza  
Besterik ez bezalako kapela
6. Ipuin harrigarriak 6  
Estudiante Tonto  
Ezkonberriak
7. Ipuin harrigarriak 7  
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki  
Zeruko berriak
8. Ipuin harrigarriak 8  
Pepetxu eta Popatxu  
Kardulatza salatari

**Urriaren 8tik aurrera ASTEBURUETAN**

**berria**  
Berriko argitalpena aurrera ez alda eztabiderik arazoaren da berria

**+ 3 €**

Laguntzaileak:  
Euzko Legebiltzariaren Foru Erkidegoa  
Bizkaia

IBARRA ▶ KULTURA

# Egunik handienarekin Kultur Asteari aurtengoz, agur

Goizetik eguerdia bitartean, herria kalejiran zeharkatu zuten dantzari gazteek

NEREA LIZARTZA

Ibarrak alai hasi zuen eguna atzokoan, izan ere, dantzari gazteak herrian zehar dantzan ibili ziren goiz osoan. Iragarrita bezala, Alurr-eko eta Altzoko dantza eskoletako gaztetxoak kalez kale ibili ziren, irakasleen gidaritzapean. Ederki dantzatu zituzten trikitilariek eta txistulariek markatzen zizkieten doinuak. Era berean, jende ugari animatu zen dantzarien atzetik kalejiran herriko kaleetan zehar ibiltzera. Pozarren ibili ziren haurrak saio osoan eta, are gehiago herritarrak eta gurasoak, hauek helarazten zuten alaitasuna eta jai giroa ikusirik.

Goizeko hamaikak aldera herriko plazan elkartu ziren dantzari guztiak; inork ez zuen hutsik egin, ezta eguraldiak ere. Halaber, urduri ageri ziren dantzari gaztetxoak emanaldia zela eta. Dena den, laster utzi zuten urduritasuna eta trikiti doinuekin dantzan hasi ziren. Ekitaldiari hasiera emateko, dantzari guztiek elkarrekin *Agurra* dantzatu zuten. Ondoren, Euskal Herria kalea kalejiran zeharkatu, eta Karlatz garagardotegiaren parean hainbat dantza saio eskaini zituzten. Bertan, hamaiketako egin eta indarberritu zirenean, kaljiran jarraitu zuten Emeterio Arredera, han ere ikusleei euren dantzarako dohainak erakutsi asmoz.

20:00etatik aurrera, Alurr-eko helduek emanaldia eskaini zuten Belabieta kiroldegian. Ekitaldiz bateriko egun honekin amaiera eman zioten dantza taldearen hamargarren urteurrena ospatzeko antolatutako Kultur Asteari; beste hainbeste bete ditzatela!



Dantzariak kalejira hasi aurretik. NEREA LIZARTZA



Euskal Herria kalean dantza saioa egin zuten. N. LIZARTZA



Kalejiran ibili ziren Ibarako kaleetan. NEREA LIZARTZA

Kalejirari hasiera emateko *Agurra* dantzatu zuten talde guztiek elkarrekin. NEREA LIZARTZA

TOLOSA ▶

## Udazken egun oparoa bizi zen atzoko azokan

Produktuen eskaintza azokara joan ziren erosleen eskariaren neurrikoa izan zen

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna alai eta animosoa suertatu zen. Eguraldia lagun zela, erosle dezentek egin zuten astebururako buelta Zerkausira. Ondorioz, goizaren bukaera aldean lortutako salmentak ez ziren batere kaskarrak izan.

Eskaintzak ere bere onean jarraitu zuen; astero bezala, barazki zerrenda oso zabala izan baitzen, hala nola azak, azaloreak, porruak, azenarioak, borrajak, bruselazak... ikus zitezkeen saltoki postuetan.

Perretxiko zerrenda, ostera, ez zen joan den asteakoa bezain oparoa izan. Baina zizahori asko, gibelurdin dexente, ondo ugari, eta beste espezie ez hain ezagunak baudeuden salgai; horiek guztiak 18 euroren truke saldu zituzten.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Lilia	1,20	-
Geranioa	1,90	2,50
Porruak	2,40	-
<b>Bertako produktuak</b>		
Uxoa	6,00	-
Ondoaak	10,00	22,00
Zizahoria	15,00	18,00
Gaztaina	2,20	2,50
Tolosako Babar.	8,00	12,00
Arraultzak	1,30	2,10
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Aza	2,50	3,00
Arroza	1,90	2,00

hitza **txokoa** lagunena

## 10 sarreren zozketa

▶ Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, KEN ZAZPI eta MUCHACHITO BOMBO INFIERNO taldeen kontzertua, Tolosako zezen-plazan, hilaren 15ean.

▶ Deitu eta har ezazu parte zozketan, 2 sarrera irabaz ditzakezu.

**943 65 56 95** (11:00-13:00 / 16:00-18:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



ADUNA ▶ UPELERA



**Idi para.** Sagardoa egiteko lehen pausoa sagarrak biltzea da. Horretarako, zelai batetara joan ziren sagardogileak eta gerturatu zirenak. Idi para hartu eta *bota* izeneko zestoak erabili zituzten. M. SAN SEBASTIAN



**Bilketa.** Antzina bezala jantzirik egin zuten antzezpina. M. S. S.



**Tolarea.** Ondoren, tolarera igo ziren sagardogileak oinutsik sagarra *jotzera*. Lehen sagar zukuia edan ahal izan zuten ikusleek. M. S. S.



**Ikusmina.** Eguraldi ona egiten zuela eta, jende asko joan zen atzo Adunara ikuskizun bibi hau ikusteko gogoarekin. M. S. S.

MARTA SAN SEBASTIAN

Sagardoa fresko eta eguraldi onarekin edatekoa dela diote askok. Atzoko eguzkiak, behintzat, Tolosaldeko Upelera sagardo festa gogotik lagundu nahi izan zuen. Egun borobila izan zuten Adunan. Beti ere sagardoaren inguruan hainbat ekitaldi egin ziren, zuku prezia-tua errege izan zelarik.

Eztarria busti aurretik argazki erakusketa ikusteko aukera izan zen goizean, eta baita arratsaldean ere. 17:00ak inguruan, antzeppen bitxia egin zuten Adunan. Antzina sagardoa egiteko modua berreskuratu zuten, eta antzerki moduan ikus-entzuleei erakutsi zieten. Inor gutxi du sagardoa egite-

ko modu zahar honen berri, eta bertaratutakoen artean jakin-gura handia sortu zuen ikuski-zunak. Ondoren, 19:30ean, *Sagarrondotik sabelera* deituriko bideo emanaldiaren proiektzioa egin zuten, sagardoaren nondik norakoetan gehiago sakontzeko.

Iluntzean, eta dagoeneko gau giroan murgiltuta, herri afaria egin zuten. Ondoren, J. M. Beltran eta Astiasaranek saioa eskaini zuten. Gauerdia iristen Ipar Haizea, Brigada Kriminal, Sagarro eta Sioux taldeek kontzertua handia egin zuten gautxorientzat.

Gaur, sagardoa lagun, ekitaldiek jarraituko dute Adunan, eta Upelera jaiaren azken eguna izango dute.

# Garai bateko sagardogileak bezala

Upelera sagardoaren festan, antzina sagardoa egiteko modua antzeztu zuten; sagardoa ere dastagarri izan zen

EGITARAUA ▶ GAUR

**Egun osoan.** Dultzaineroak, bistulariak eta albokariak.  
**10:00.** Tolosaldeko produktuen azoka.  
**11:00-14:00 eta 16:00-20:00.** Argazki erakusketa.  
**11:40.** Herriko abesbatza.

**12:00.** Tolosaldeko sagardoan dastaketa eta txapelketa irekia.  
**14:00.** Bertso bazkaria Xebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin Aburuza sagardotegian (sarrerarekin).

**18:00.** Herri kirolak (sarrerarekin). Aizkoran, J. M. Olasagasti eta U. Otaño I. Azurmendiren eta J. M. Erasunen aurka. Harri-jasotzen: Irigoien markahauste saiakera esku batekin.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldecohitz.a

'Ohartu gara ez dutela egunek aurrera egiten ez bada amets galduetara erortzeko; eta oroitzapenez bete dela mundua ez baitira gogora etortzen diren ilusio falsuak besterik... Etan ez genuke hemendik joan nahi, Joseba, argirik ikusten ez den eremura bakarrik baikaude zu ez zaudenetik.'

ZUE KUADRILLE



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa.** 1955ean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituzten festa ari dira prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa: 650 69 35 40 (Santi Belloso), 630 90 80 45 (Joaquín Odriozola) eta 669 82 88 18 (Ángel García). 75 euro sartu Kutxan: 2101 0152 68 0125058396.

**Tolosa.** 2006ko egutegia egiteko Tolosan ateratako argazki lehiaketa. Sariak: urtebeteko argia eta gasa doan. Aurkezteko tokia: Tolargi (Gorosabel 34), Tolosagasa (Arostegieta 18) edo 750@tolosakoudala.net etzi 10 baino lehen.

**Leitza.** Altsasun hilaren 16an egingo den Nafarroa Oinezan ordu batzuetan laguntzeko (txosnetan, zaintzan, trafikoa bideratzen...) izena eman daiteke Karrape Irratian (948 61 09 14) edo IKA euskaltegian (948 61 0776).

**Tolosa.** Galtzaundi Euskara Elkarteak hilaren 16an Altsasun eginen den Nafarroa Oinezera joateko autobusak antolatu ditu. Izen-ematea, hilaren 14a arte, bulegoan (Nafarroa et. 6), 17:00etatik 20:00etara. **Altzo.** Hilaren 16an egingo den Jubilatuen Egunerako izen-ematea hilaren 12a baino lehen egin behar da udalekean. Meza, dantzariak, pilota, bertsolariak eta bazkaria izango dira.

IKASTAROAK

**Larraul.** Haur eta gazteen asialdirako begirale ikastaroa antolatu du Hezkide Eskolak (www.hezkide.org, 943 31 14 74), Larraulgo baserri batean, maiatzaren 6a arte. Zuzendariena, berriz, azarotik martxora izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Bihar**  
**Tolosa.** Ebebeste, J. M.: Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Salto eta salto

**UGARTE** ▶ Gaur amaituko dituzte Ugarten Errosarioko Amaren omenezko jaiak; atzo haurrentzat puzgarriak, Mus Txapelketa eta zahagiardoa egon ziren



Haur dezente inguratu ziren Ugarteko frontoira puzgarrietan jolasteko asmoz. M. SAN SEBASTIAN

MARTA SAN SEBASTIAN

**H**erriko txikienek gozatu ederra hartu zuten atzo Ugarten. Errosarioko Amaren omenezko jaiak ospatzen ari dira egunotan, eta frontoian puzgarriak jarri zituzten goizean eta arratsaldean. Dagoeneko urriaren bete-betean egon arren, eguraldi bikaina izan zuten, eta auzoa kolorez eta irribarrez bete zen.



Kolpe bat baina gehiago jaso zuten umeek. M.SAN SEBASTIAN

Puzgarriez gain, atzo beste hainbat ekitaldi ere izan zituzten; hala nola, Ugarteko VII. Mus Txapelketa edo zaldi karrera. Iluntze aldera, aldiz, zahagiardoa izan zen dastagarri. Zintzurak ederki busti eta gero, Kupela taldearen musika doinuekin dantza egin zuten amezketarrek.

Gaur festarako azken eguna izango dute Ugarten. Lehen ekitaldia Meza Nagusia izango da, 11:00etan. Ondoren, pilotari gazteen arteko partidak izango dira ikusgarri. Amundarain-Altuna bikoteak Artolaren eta Zabalaren aurka jokatuko dute; eta Sagastume-Iribarren Belokiren eta Eigurenen areiro izango dira. Jarraian, hamaiketako eskainiko dute.

Amezketako auzo honetan ezaguna den *Ingurutxo*a dantzatuko dute eguerdian eta arratsaldean. Bazkal aurretik, Laja eta Landakandaren trikiti saioa izango da. Arrospeide eta Olasagasti aizkolariak eta Izeta harri-jasotzaileak ikuskizuna ere eskainiko dute 18:00etan. Arratsaldeko *Ingurutxo*a-ren ondoren, *Arratiako Jota* dantzatuko dute plazan. Laja eta Landakandak emango diete amaiera aurtengo jaiak.

AGURRAK ▶



Zorionak, poto.

Ikusten deken bezala aurten ere pipar ugari baina zuen gatza falta.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarte

Mesedez,  
argazkia bi egun  
lehenago ekarri.  
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA